



LEHENDAKARITZA

Kanpo Harremanetarako
Idazkaritza Nagusia
Europako Gaietarako Zuzendaritza

PRESIDENCIA

Secretaría General de
Acción Exterior
Dirección de Asuntos Europeos

**Europako Kontseiluaren bilera (EBTren 50. artikulua)
Brexitaren negoziazioen aurrerapenak eta burutako lorpenen gaineko ondorioak
Brusela, 2018ko ekainaren 29a**

Europar Batasuneko 27 Estatu kideren estatuburuak eta gobernuburuak (denak, Erresuma Batua izan ezik) ekainaren 29an bildu ziren Brexitaren negoziazioen egoera berrikusteko eta egindako aurrerapenen gaineko ondorioak hartzeko.

Martxoaren 23an egin zen azkeneko ohiz kanpoko Europako Kontseiluan (50. art.), Kontseiluak zenbait orientabide onartu zituen EBren eta Erresuma Batuaren arteko etorkizuneko harremanaren gainean.

Orain dela gutxi, ekainaren 19an, Europar Batasunak eta Erresuma Batuak adierazpen bateratu bat argitaratu zuten, non 2018ko martxoaren 16 eta eta 19 artean negoziazioak egin zirenetik erregistratutako aurrerapenak jasotzen diren, honako hauen gainean: aduanak, BEZ, Euratom salerosgaietzako egiaztatzea.

Europako Kontseiluak ekainean egindako bilera horretan (50. art.), liderrek Ateratze Akordioaren testu juridikoan egindako aurrerapenak onartu zituzten. Hala ere, nabarmendu zuten beste hainbat alderdi garrantzitsu adostu behar direla oraindik, Akordioaren lurralde-ekarpena barne, bereziki Gibraltari dagokionez.

Erresuma Batuaren eta Europar Batasunaren arteko dibortzioa eraginkorra izateko bederatzi hilabete falta direla, liderrek beren kezka azaldu zuten ez delako aurrerapen garrantzitsurik egin Irlandaren eta Ipar Irlandaren arteko mugari dagokionez. Nabarmendu zuten ahalegin gehiago egin behar zela Ateratze Akordioa, trantsizioaren gaineko bere xedapenak barne, ahalik eta azkarren amaitu dadin eta 2019ko martxoan indarrean jar dadin, ateratzeko aurreikusten den datan. Gogorarazten dute negoziazioek soilik aurrera egin ahalko dutela baldin eta une honetara arte hartu diren konpromiso guztiak erabat errespetatzen badira.

Era berean, nabarmendu zuten lana azkartu behar dela Erresuma Batuaren eta Europar Batasunaren artean etorkizuneko harremanen esparruaren gainean adierazpen politiko bat prestatzeko. Horrek esan nahi du Erresuma Batuak bere jarrera gehiago zehaztu behar duela eta proposamen bideragarriak aurkeztu behar dituela.

Azkenenik, aipatzen dute Erresuma Batuko jarrerak eboluzionatzen badu, EB prest egongo litzatekeela bere akordio-eskaintza berrikusteko 2017ko apirilaren 29ko eta abenduaren 15eko zein 2018ko martxoaren 23ko orientabideetan ezarritako printzipioen arabera. Eta inplikatu guztiei eskatzen diete maila guztietan eta edozer emaitzarako prest egon daitezela.

Europako Kontseiluaren hurrengo bilera (50. art.) 2018ko urria baino lehen, hau da, EBk eta Erresuma Batuak Ateratze Akordioaren behin betiko bertsioa adostu beharko duten data baino lehen, egingo den azkena da. Gainera, adierazpen politiko bat egin behar dute bien arteko etorkizuneko harreman-esparruaren gainean, Europako Parlamentuak, Kontseiluak (50. art.) eta Erresuma Batuak akordioa azkar berretsi ahal izan dezaten.